

# Euskaltzaindiaren *Arauak*

2020ko araugintza

Exonomastika batzordea

### 2020an Osoko bilkuran eztabaidatutako arauak

Urtarrilaren 31n 36. araua eguneratzeko proposamena aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari. Otsailaren 28an euskaltzain osoen oharren erantzuna aurkeztu zitzaion Osoko bilkurari, eta, egun berean, arauaren bertsio berria onartu zuen Osoko bilkurak.

### 2020an argitaratutako arauak

1) Ekainaren 24an, 36. arauaren bertsio eguneratua eta emendatua argitaratu zen (36. araua: ***Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak***).

1995ean eman zuen Euskaltzaindiak 36. araua lehen aldiz (*Frantziako Errepublikako eskualde, departamendu eta hiriburuen izenak*). Handik 10 urtera, 2006an, eguneratu egin zuen, izen ofizialetan izandako aldaketak jasotzeko.

2016ko urtarrilaren lehenaz geroztik indarrean dago Frantziako Errepublikan banaketa administratibo berria, eta aldaketa nabarmenak izan dira, batez ere eskualdeetan: 27 eskualde ziren 2016 arte, eta 18 dira orain. Adibidez, Ipar Euskal Herri osoa *Akitania* izeneko eskualdean zegoen ordura arte. Gaur egun, berriz, lehengo *Akitania*, *Limousin* eta *Poitou-Charentes* eskualdeak eskualde berri batean elkartuta daude, eta eskualde horren izena *Akitania Berria* da. Horregatik, araua eguneratu beharra zegoen.

Arau eguneratzeaz gainera, aldaketa eta doikuntza batzuk egin dira, arauaren barne-kohesioa ziurtatzeko eta toponimiako gainerako arauetik koherentzia zaintzeko. Horretarako, irizpide zehatzak definitu dira, eta irizpide horiek aplika-

tu dira eskualde berrien izenen euskarazko ordainak emateko. Halaber, irizpide horien arabera egokitu dira lehendik emandako departamenduen izenak. Horrenbestez, arauaren 1995eko bertsioan emandako departamendu-izenetan zenbait aldaketa gertatu dira.

2) Ekainaren 29an, 191. araua argitaratu zen (191. araua: ***Artelanen izenak. Historiaurreko eta Antzinaroko artelanen izenak***).

Munduko artelanak euskaraz adierazteko orduan, zalantzak izaten dira batzuetan: zer edo noiz euskaratu behar den eta zer edo noiz ez, nola euskaratu, letra larriak noiz erabili, letra etzanak erabili edo ez... Horregatik, irizpide nagusiak landu dira arauan. Batetik, eraikin eta monumentuak (*Lehoien atea, Alexandriako itsasargia, Luxor*ko obeliskoa, *Piramide Makurra, Trajanoren zutabea*), eta, bestetik, eskulturak bereizi dira (*Eskriba Eseria, Belvedereko tortsoa, Diskoboloa, Frantziako Kameu Handia*), jokabide desberdina baitute. Bestetik, artelanaren izendapenaren egitura aztertu da, eta osagai espezifikoa eta generikoa bereizi dira. Egitura horren arabera ezartzen zaio letra larria edo xehea izendapenaren atal bakoitzari.

Eskulturen izendapenetan, halaber, azalpenak ematen dira jakiteko noiz erabili behar den izendapenaren atal generikoa letra larriz (*Delfosko Auriga, Venus Milokoa*) eta noiz ez (*Rodasko kolosoa, Nefertitiren bustoa*).

Irizpide nagusiak emateaz gainera, historiaurreko eta Antzinaroko artelan nagusien zerrendak ere ematen dira arauan. Guztira, 150 artelan (arte minoikoa eta mizenikoa, Mesopotamiakoa, Egiptokoa, Greziakoa eta Erromatar Inperiokoa), eta, euskarazko izendapenez gainera, gartzelaniazkoa, frantsesezkoa eta ingelesezkoa ere ematen dira.

## 2020ko araugintza

### Onomastika batzordea

#### Osoko bilkuran 2020an eztabaidatutako arauak

Iruñeko eta Nafarroako errege-erreginen araugaia aurkeztu zen otsaileko Osoko bilkuran. Euskaltzain osoek egindako oharrak eta proposamenak batzordean aztertu, eztabaidatu eta erantzunak prestatu eta aurkeztu ondoren, Osoko bilkurak irailaren 25ean onartu zuen.

#### 2020an argitaratutako araua

Azaroaren 2an, 192. araua argitaratu zen (192. araua: ***Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak***).

Duela urte batzuk, Europako hainbat erresumatako errege-erreginen izenak arautu zituen Euskaltzaindiak. Zehazki, 180. arauan (*Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak*), 181. arauan (*Erdi Aroko pertsona-izenak*) eta 186. arauan (*Atzerriko pertsona-izenak. Grafia irizpideak. Errege-erreginen eta kidekoen kasua*), errege-erreginen zerrenda xeheak ageri dira. Haien artean daude gure inguruko erresuma nagusi guztietako errege-erreginak, hala nola Aragoikoak, Frantziakoak, Gaztelakoak, Espainiakoak eta abar. Hala ere, Euskal Herriaren historian hain toki nabarmena izan zuten Iruñeko eta Nafarroako Erresumako errege-erreginen izenak ez dira arau horietan ageri, izen horiek bereiz eta xeheago landu eta plazaratu nahi baitzituen Euskaltzaindiak. Hutsune hori betetzeko prestatu da 192. araua.

Arauak bi atal ditu. Lehenengoan, izenak emateko erabilitako irizpideak zehazten dira, patronimikoak emateko baliatutako irizpideak barne (*Ramiritz, Gartzeitx...*). Bigarrenean, errege-erreginen zerrenda ematen da, ordena kronologikoan, eta zenbait datu osagarri ere ematen dira izenaz gainera: errege-erregina bakoitzaren dinastia, kronologia-zenbakia, izengoitia(k), bizialdia, erreinaldia, ezkontide(ar)en izenak, semealaben izenak eta errege edo erregina bakoitzaren gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko izenak. Guztira, 42 errege-erregina izen dira.

Gaztelak eta Aragoik 1512an Nafarroa inbaditu eta konkistatu ondoren, Gaztelako eta Espainiako errege-erreginak izan ziren Nafarroa Garaiko errege-erregina titularrak Nafarroako Erresuma ofizialki 1841ean desagertu zen arte. Nafarroa Beherean, bestalde, 1620an Nafarroako koroa Frantziako koroari atxikita gelditu zen, eta, harrezkero, Frantziako errege-erreginen noblezia titulua baino ez zen izan Nafarroako errege/erregina izendapena. Errege-erregina horien guztien euskarazko izenak lehendik arautuak daude, 186. arauan. Horregatik, ez dira sartu 192. arauan.

Zerrenda kronologiko nagusiaz gainera, beste zerrenda bat eman da arauan, alfabetoaren ordenan, eta kronologia-zenbakia erantsita, zerrenda nagusian berehala kokatu ahal izateko. Azkenik, gaztelania-euskara, frantsesa-euskara eta ingelesa-euskara zerrendak ere eman dira, alfabetoaren ordenan.